



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BETELURIKO EUT-KO ETA GALINDOKO HUA-KO TELEFONIAKO BIZIRAUPEN-ATEBIDEAK BERRITZEKO EKIPAMENDUA HORNITZEKO. ESPEDIENTE-ZK.: 3297.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☒ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	ISABEL LUQUIN MAROTO
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zenbakia: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: BETELURIKO EUT-KO ETA GALINDOKO HUA-KO TELEFONIAKO BIZIRAUPEN-ATEBIDEAK BERRITZEKO EKIPAMENDUAZ HORNITZEA.

2.- Bete beharreko premiak: Gaur egun, BBUPk IP telefoniako biziraupen-atebideak ditu Galindoko HUAn eta Beteluriko EUTn, ahots-zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko IP telefoniako plataforma korporatiboaren funtzionamendu degradatua dagoenean edo egoitza horien eta telefonia korporatiboko plataforma zentralaren arteko konektibitate-arazoak daudenean. Kontuan hartuta gaur egun instalatuta dagoen ekipamenduaren (SRST atebideak) zaharkitze teknologikoa eta zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko beharra, bi egoitzetan biziraupen-atebideak berritu eta martxan jarri behar dira, konponbidea gaur egun eskuragarri dauden prestazioekin eta zehaztutako lanerako betekizunekin parekatzeko. Jarduketak bideetan eta modu degradatuan jarduteko egungo prozedura kopia beharko du, gutxienez bi egoera kontuan hartuta: ☐ Sare publikorako irteera zentrala erabiltzeko aukerarik ez egotea, eta telefonia korporatiboko plataformaren eta egoitzekiko konektagarritasunaren eraginkortasunak bere horretan jarraitzea. ☐ Egoitzak telefonia-plataformarekiko konektibitatea galtzea eta/edo plataforma hori erabilgarri ez egotea; beharrezkoa da tokian bizirautea, egoitzako biziraupen-telefoniaren bidez. Honako hauek bermatu beharko dira, gutxienez: egoitzako biziraupen-telefoniaren sare publikorako funtsezko irteera eta larrialdietarako deiak (112). Egoitzako biziraupen-telefonian sartzen diren deiak jasotzea haien aplikagarritasunaren eta operadorearen arkitekturak horretarako aukera ematearen mende egongo da.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Hornigaiaren ezaugarriak eta instalazioetan egin beharreko jarduketak oso antzekoak direnez, ez da komeni multzoak bereizi eta lote independente gisa kontratatzea. Hala, espediente hau lotetan banatzeak zaildu egingo luke espediente hura kudeatzea, edo, are gehiago, eragotzi egingo luke lanak egitea lote bat edo batzuk adjudikatu ezean.

4.- CPV:



B.- KONTRATUAREN XEDEA.

- 50334110-9 Telefono-sareen mantentze-lanak egiteko zerbitzuak
- 32522000-8 Telekomunikazio-ekipamendua

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI ☒ EZ

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

HOGEITA BI MILA ETA ZAZPI EURO ETA
HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (22.007,67 €),
BEZik GABE.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 22.007,67 euro

Loteak:

☐ BAI ☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 62302 16931

2027. urtea: 22.007,67 euro, BEZik gabe.

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

Aplikatzekoa den formula:

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

Funts-mota: Elkarrekin finantzatzeko %:

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

- Materialen bilketari buruzko hasierako ziurtagiria (% 70): Hala badagokio, ekipamendua jaso eta egiaztatu ondoren, bilketa ordaindu ahal izango da, betiere espedientearen administrazio-dokumentuetan ezarritakoaren arabera eta, hala badagokio, eska daitezkeen abalen edo bermeen aurka.
- Azken ziurtagiria (% 30): Kontratua amaitu ondoren ordainduko da, hau da, jarraian adierazten diren baldintzak betetzen direnean:
 - o Instalazioa amaitzea, integratzea eta funtzionamendu-probak gainditzea, baita modu degradatuan ere (biziraupeneko telefonia-probak egoitzan eta 112ra egindako deiak barne, hala dagokionean). % 10
 - o Behin betiko dokumentuak entregatzea (as-built, konfigurazioa, proben plana/akta eta eskuliburuak). % 10
 - o Behin betiko jasotze-akta sinatzea. % 10



C.-KONTRATUAREN PREZIOA

- Partida batzuen funtzionamendua lizentzia, konfigurazio edo parametroen kargaren araberakoa bada, PTPAn zehaztutako onarpen-probak gainditu beharko dira partida horiek ordaintzeko

8.-Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: HAMASEI (16) ASTE

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.-Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Berme-epea: BI (2) URTE

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BETELURIKO EUT ETA GALINDOKO HUA

6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumenik handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez. (22.007,67 €)



G.-KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan kontratatutakoen antzeko sistemak ezartzeko zerbitzu edo lan nagusiak. Gutxienezko betekizuna da gehien gauzatutako urtean pilotutako urteko zenbatekoa izatea kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo handiagoa.
- Proposatutako ekipoen fabrikatzaileak enpresa instalatzaile eta/edo mantentzaile gisa ziurtatuta izan behar du lizitatzailea. Kontratuari atxikitako bitartekoei buruzko ziurtagiri hori eskaintzak egiteko epea amaitu baino lehenagokoa izan beharko da.
- Eskaintzak egiteko epea amaitzen den egunean, lizitatzaileak egiaztatu beharko du kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko SENren maila ertaineko ziurtagiria duela.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

BALIABIDEEN ATXIKIPENA

Kontratuari atxiki beharreko giza baliabideak: Enpresa lizitatzaileak kontratuari gutxienez profil hauek atxiki beharko dizkio:

- Proiektuburua: gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua izan beharko du IP telefoniako eta/edo telekomunikazioetako proiektuetan.
- Instalazio- eta integrazio-teknikaria: gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatua izan beharko du materialaren fabrikatzailearen ekipamenduan, baita IP telefoniako sistemak instalatzeko, integratzeko eta martxan jartzeko lanetan ere (barne hartuta rack-ean muntatzea, staging-a, SIP enborra konfiguratzea eta integratzea eta biziraupen-telefonía).

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena eta balio-judizioen araberrako irizpideei buruzko dokumentuak.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

1. dokumentua.

Eskaintzaileek proiektua gauzatzeko memoria teknika eta metodologia entregatu behar dituzte, eta egin beharreko jardura bakoitzaren irismena, metodologia, lan-prozedura eta oinarrizko edukia proposatu behar dituzte.

2. dokumentua.

Eskaintako ekipoen, baliabide tekniko (instalaziorako material osagarriak) eta giza baliabideen zerrenda.

Eskaintako ekipoen ezaugarri nagusiak eta merkataritza-erreferentzia guztiak adierazi behar dira.

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Ez dute balioko aukera batek baino gehiagok, deskribapen orokorrek edo “antzekoa” bezalako adierazpenek. Eskainitako materialak lotesleak izango dira. Hau da, eskaintza adjudikatu eta gero ezingo dira ordezkatu, BBUPren zuzendaritza fakultatiboak idatzizko baimena eman ezean.

Lizitatzailleak, nahitaezko dokumentu tekniko baztertzaille gisa (puntuagarria ez dena), eskainitako ekipamendu eta lizentzia guztien fabrikatzailearen fitxa tekniko ofizialak (datasheets) entregatu beharko ditu, baita aplikatu beharreko lizentziamendu/funtzionaltasunari buruzko dokumentu ofizialak ere, modu objektiboan egiaztatu ahal izateko PTPAren gutxieneko betekizun guztiak betetzen direla.

Dokumentu horiek 2. dokumentuaren eranskin bereizi batean jasoko dira, informazio ebaluagarri gehigarririk gabe. Modu ordenatuan eta behar bezain argian entregatu beharko dira, eta beharrezkoa denean gutxieneko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen datasheet-aren apartatu eta/edo orrialde zehatza adierazita.

Fitxa tekniko horiek eta/edo aplikatu beharreko dokumentuak entregatzen ez badira, edo gutxieneko betekizunetarik edozein ez bada behar bezala egiaztatzen, ez-betetzetzat hartuko da, eta eskaintzatik baztertu egingo da.

Materialen eta aplikazioen fabrikatzaileen lankidetzakonpromisoaren gutunak positiboki baloratuko dira.

Instalazioko material osagarriak. Instalatzeko, konfiguratze, martxan jartzeko eta integratzeko erremintak, aparatuak, neurketa-ekipoak, segurtasun-materiala eta ibilgailuak. Modu argian azaldu behar dira, erabili beharreko materialaren markak eta modeloak adierazita.

Eskaintzen diren giza baliabideak adierazteko, kontratuari/proiektuari atxikitako langileen organigrama eman behar da, eta langile bakoitzaren prestakuntza eta esperientzia jaso behar dira. Egindako lanen erreferentziak eman behar dira (PTPAren betekizunen arabera), eta lan horiek izaera berekoak izan behar dute (azken bezeroen proba-gutunekin batera ematea baloratuko da); Ikasketa-tituluaren eta curriculum vitaearen fotokopiak. Baloratuko da, halaber, laneko segurtasunari buruzko oinarritzko ikastaroa egin izana eta hornitu eta instalatu beharreko ekipoen fabrikatzaileak baliabide bakoitzaren homologazioa/ziurtagiri pertsonala egin izana.

3. dokumentua.

Eskainitako bermearen edo luzatutako bermeen konpromiso-gutuna entregatu beharko da.

Berme-aldian eskaintzen den bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ezaugarriei buruzko informazio guztia jasoko da, besteak beste, abisu-prozedurak, zerbitzuaren ordutegiak, zerbitzu-mailak eta hitzartutako erantzuteko denbora. Elementu bakoitzaren eskainitako bermearen denbora adieraziko da.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz-mehatz idatzita egon beharko da, I. eranskinaren ereduaren arabera. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.
- b) Kontratuaren aurrekontua.

Lizitatzailleek aleko prezioak eta aleko prezioen taula osatzen duten puntuetako bakoitzaren guztizko salmenta-prezioak beteko dituzte (prezio bakoitzari neurraketa bat dagokio, eta lizitatzailleek ezin izango dute neurraketa hori aldatu):

ID	Nombre genérico	Descripción (mínimos exigibles en la partida)	Precio Oferta Máximo sin IVA Unitario	Cant.	Precio Oferta Máximo sin IVA Total
Suministro Gateway					
A.01	Suministro de gateway/router IP de sede (voz + datos)	Suministro de un conjunto de equipamiento tipo gateway/edge router para sede, apto para routing IP y servicios de voz, en formato rack 1RU, montaje en rack 19", alimentación AC, y mínimo 4 puertos WAN 1GbE y 1 ranura modular para expansión. Debe incluir todos los elementos necesarios para operación (memoria mínima, kit rack, cableado de alimentación, tapas/ceguidores si aplica, identificación/asset tag). El conjunto deberá incluir recursos DSP para servicios de voz (módulo específico o recursos integrados/licenciados equivalentes), con capacidad mínima 32 canales, para funciones de tratamiento de medios (p. ej., transcoding/MTP) y soporte DTMF si aplica según entorno. El formato del recurso deberá ser compatible con el equipo ofertado. Asimismo, deberá incluir suscripción/licencia por equipo (duración mínima 3 años) para habilitar funcionalidades avanzadas de red/gestión/telemetría y modos de operación (autónomo y/o SD-Routing/SD-WAN si procede), incluyendo el soporte de la suscripción. El suministro incluirá, además, los ítems asociados al equipo necesarios para su puesta en servicio (p. ej., aprovisionamiento plug-and-play/zero-touch, elementos ciegos, cumplimiento regulatorio y software/imagen de sistema). Modelo de referencia: Catalyst 8200L-1N-4T, u otro equivalente de prestaciones iguales o superiores, plenamente compatible con el sistema existente, sin requerir cambios en el sistema actual.		2	
Licencias					
A.02	Suministro de licencias de sesiones para trunk SIP (SBC/gateway de voz)	Suministro de licencias por número de sesiones concurrentes para cursar llamadas mediante troncal SIP desde las sedes, incluyendo las funciones de elemento frontera de sesión (SBC) necesarias para la operación.		8	
A.03	Suministro de licencias de supervivencia por número de endpoints	Suministro de capacidad/licencias medidas por número de endpoints para permitir el registro local y la continuidad de servicio en sede en modo degradado, cuando no exista conectividad con el sistema central de control de llamadas.		30	
Servicios Profesionales					
A.04	Servicios profesionales de implantación	Prestación de servicios profesionales para la implantación end-to-end, incluyendo como mínimo: kickoff y toma de requisitos, staging/preparación de equipos, diseño y configuración, soporte remoto a la instalación, instalación física en sedes de Galindo y Venta Alta, pruebas de aceptación y documentación. Debe incluir al menos una intervención fuera de horario laboral por cada sede.		1	

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak egiteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki egitea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorcioaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordezkarriak):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkarria):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan lehiaketa adjudikatzeko:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 75 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 75 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

$$(Ob / OI) \times z$$

Argibideak:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena
OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera
z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 25 PUNTU

1.- Memoria teknikoa eta gauzatzeko metodologia: 10 puntu.

- Kontratuaren beharrei buruzko ezagutza-maila egiaztatzea
- Kontratuaren funtsezko alderdiak identifikatzea, irismena definitzea, laneko antolamendua eta prozedurak, obrako lanen plangintza eta kronologia. Lanen programa, baliabideak esleituta.

2.- Kontratuaren zerbitzura jarritako ekipoak eta baliabideak: 10 puntu.

- Eskainitako ekipoak
- Horniketa eta instalazioa gauzatzeko baliabide teknikoak eta giza baliabideak.
- Antolamendua eta lantaldeak.

3- Berme-zerbitzuaren deskribapena: 5 puntu

- Berme-zerbitzuaren proposamena egokia den baloratuko da, eta bezeroa gogobetetzea bermatzen duten laguntza-lanen deskribapenean zehaztasuna baloratuko da. Berme-epea luzatzea baloratuko da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarateratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- Zozketa egingo da aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzailerak izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerak izanik, egindako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea % 25 baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, haien artean batezbestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, beste batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarrik izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez **10** puntu eskuratzen ez dituztenak.

ESKAITZA BAZTERTZEKO EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- Preskripzio tekniko partikularren agirian edo administrazio-baldintzetan ezarritako betekizunen bat urratzen duen eskaintza egitea.
- Lanak egin behar dituen enpresak ez edukitzea proposatutako ekipoen fabrikatzaileak emandako enpresa instalatzailearen eta/edo mantentzailearen ziurtagiria.
- Enpresak ez betetzea eskatzen diren kaudimen tekniko eta profesionaleko irizpideak.
- Eskaintako ekipoen gutxieneko eskakizun teknikoak ez betetzea.
- Ez zehaztea eskaintako ekipoen marka eta modelo zehatza, edo deskribapen orokorrak egitea konponbide jakin bat identifikatu gabe.
- Eskatzen diren dokumentu teknikoak ez entregatzea edo behar bezala ez egiaztatzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Kontratistak ezarritako epean bete behar du kontratua. Kontratistak epe hori gainditzen badu, zigor hauek ezarriko zaizkio:

- Zigorak: Kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1, atzeratutako aste bakoitzeko.
- Atzerapenagatiko zigorra ehuneko bostera (% 5) iristen bada, BBUP kontratua deuseztatzen hasi ahal izango da. Zigorren baturak ezingo du izan kontratuaren aurrekontuaren % 10 baino handiagoa.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK ENTREGATU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakiak hartzeko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratuari, eta hark kontratista ordezkatu beharko du kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

Ordezkari hori izango da baliozko solaskide bakarra kontratuari dagozkion gai guztietarako. Telefono mugikorra izango du, harekin errazago harremanetan jartzeko, baita posta elektronikoa ere.

Ordezkarria aldi baterako kanpoan badago, Kontratatista beste ordezkari bat jarri behar du Kontratuaren zerbitzura, eta adierazitako betekizunak bete beharko ditu. Hala, BBUPren Kontratuaren Arduradunak baliozko solaskide bakarra izango du beti, lan-jarraibideak adierazteko.

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitakoez gain:

- BBUPren Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- BBUPren ingurumen-eskakizunak betetzea.
- Prebentzio-baliabide bat izatea uneoro landa-bisitetan eta egoitzan egiten diren lanetan, aplikatzekoa den araudiaren arabera eska daitekeenean.
- Lanak zerbitzuaren beharren arabera egingo dira. Hori dela eta, noiznahi eten edo atzeratu beharko dira, BBUPk hala eskatuz gero. Aurrekoa betetzen ez bada, kontratua suntsitu ahal izango da.
- Adjudikaziodunaren akats edo axolagabekeria batek sortutako matxura edo istripu larria kontratua suntsitzeko kausa izan ahalko da.
- % 5 baino zigor handiagoak ezarriz gero, kontratua deuseztatu ahal izango da.